

HERRIKO KONTSEILUAREN BILDUMA

2025eko UZTAILAREN 03a

Kontseilarien kopurua	15	Bi mila eta hogeita bosgarren urtean, uztailaren hiruan, arratseko zortzi eta erdietan, Baigorriko Herriko Kontseilua bildu da, Herriko Etxean, jaun auzapezak deiturik. Dei hori 2025eko ekainaren 27an afixatua izan zen eta 2025eko ekainaren 27an posta elektronikoz igorria. Antton CURUTCHARRY bilkuraburu zen.
Hor zirenak	13	
Bozkatzaileak	15	

Hor zirenak: ARANGOITS Isabelle anderea, BIBES Jean-Paul jauna, BIDART Betti jauna COSCARAT Jean-Michel jauna, CURUTCHARRY Antton jauna, DUPUY Maddalen anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MOCHO Frantxo jauna, MOUSQUES Bernadette anderea eta OLÇOMENDY Betti jauna.

Ahalordea(k): DEGUIRAUD Héléne andereak ahalordea emana zakon BIBES Jean Paul jaunari, MERCAPIDE Sandrine andereak CURUTCHARRY Antton jaunari.
Bilkurako idazkaria izendatu da: BIBES Jean Paul jauna

Parte-hartzaileak errezibitu eta quoruma bazela egiaztatu ondotik, Bilkuraburuak proposatu du gai zerrenda hau aztertzea:

Aipagaiak

- Hego Baxenabarreko Elkargo azpiko Tokiko Hirigintza Plana: herriaren iritzia Euskal Elkargoko Kontseiluak 2025eko ekainaren 21ean erabaki hTHP proiektuari buruz
- TKAPi dirulaguntza gehigarri bat ematea errepideen talde-merkatuak
- Bi bide berrien izendatzea
- Plaza Xoko eta Elizondoenearen erabiltzeko hitzarmenen aldaketa; herriko beste gela erabiltzeko hitzarmenen egitea
- VVFarekin egin hitzarmenari gehigarria
- Gai orotarik

0. AITZINEKO BILKURAREN BILDUMAREN ONARTZEA

Gai zerrendako gaiak eztabaidatu aitzin, Herriko Kontseiluak 2025eko maiatzaren 26ko bilkuraren bilduma onartu du.

1- 2025-28. DELIBEROA - HEGO BAXENABARREKO ELKARGO AZPIKO TOKIKO HIRIGINTZA PLANA: HERRIAREN IRITZIA EUSKAL ELKARGOKO KONTSEILUAK 2025EKO EKAINAREN 21EAN ERABAKI HTHP PROIEKTUARI BURUZ – 2.1 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak azaldu du:

2020ko maiatzaren 4an prefetaren erabaki bidez onartu zen baimen berezi bat, Euskal Hirigune Elkargoaren lurralde osoan elkargo azpiko tokiko bost hirigintza-plan apailatzeko, Hego Baxenabarreko hTHP apailatzea agindu zen 2021eko ekainaren 19ko Elkargoko Kontseiluan.

Hego Baxenabarreko lurraldeak 44 herri biltzen ditu (Garazi-Baigorri eta Iholdi-Oztibarre lurralde eremuak eta Pagolako herria), eta 16 500 biztanle (70 eta 1 520 biztanle artean herrien arabera). 4 herrik badute THP bat, 22k herriko hirigintza-mapa eta 18 HANaren menpe dira.

Antolamendu estrategikorako tresna bat da hTHPa, eta lurralde baten antolamendua eta hirigintza antolatzen duen tokiko plangintza dokumentua da. Bere neurriak eta espazio-dimentsioak goragoko mailan apailatu desmartzak obratzea errazten dute (Lurralde Koherentzia Eskema - LuKE, Tokiko Bizileku-Programa - TBP-, Lurraldeko Klima Airea Energia Plana -LKAEP-, Mugikortasun Plana -MP-, etab.).

2022ko uztailaren 9an Euskal Hirigune Elkargoko Kontseiluak onartu lurralde proiektuaren 3 ardatzetan oinarriturik, Hego Baxenabarreko hTHPren Antolakuntza eta Garapen Iraunkorren Proiektuak (honen orientazioak 2024ko buruilaren 28an eztabaidatu ziren Elkargoko Kontseiluan) hau du helburu:

1/ Hego Baxenabarre erresiliente bat (Gure baliabideak zaindu) bere laborantza-jitea atxikiz, bere kapital naturala zainduz baita ere berezkoak dituen paisaia-entitateak, eta bere ur-baliabidea ziurtatuz;

2/ Bizirik den eta bertan jendea bizi den Hego Baxenabarre (Gure hiriak eta herriak dinamizatu, haien osagarritasunak antolatu), lurralde osoan erakargarritasun demografikoa mantenduz edo indartuz, biztanle guztiendako ekipamendu eta zerbitzu eskaintza aski ona bermatuz, eta garapen ekonomiko orekatua eta aniztua lagunduz, gero eta biztanle dentsitate handiagoa bermatzeko erakarpemotorra;

3/ Hego Baxenabarre engaiatua, bere garapen-ereduak galdekatzen dituen eta horiei beste norabide bat ematen diena, bereziki lurralde-proiektu iraunkor baten aldeko lur-estrategia bat garatuz (lehenbiziko HTPH bat), jinen diren antolamenduen kalitatea galdatuz eta, horrela, lurraldearen nortasuna (azkarra) berresten segituz, etxebizitzaren banaketa orekatua eta aniztua bermatuz lurralde osoan, eta biztanleek eta ondasunek arrisku eta makurren aitzinean duten ahultasuna murriztuz;

Laburbilduz, 2025-2035 aldirako aurreikusi Hego Baxenabarreko hTHP proiektuak lurralde-oreka gehiago bermatzea du helburu (Garaziko polaritatearen garapenaren egonkortasuna, inguruko herrien garapen kontrolatua, hazkunde handiagoa laguntzea eta mendiko herrietako biztanleriaren galtzea geldiaraztea).

750 biztanle gehiago ukaiteko beharrezkoak diren 1 135 bizilekuak ekoiztea du helburu; hots, 2035eko urtean % 0,5eko hazkunde demografikoa (azken urteetan % 0,2z emendatzen da urtean); eta natura, laborantza eta oihan eremuen kontsumoaren ttipitzea erakusten du, % 50era hurbilduz: U eta AU eremuetan 77 hektareak lekua kontsumituko dute, hots, urtean 7-8 hektarea, azken hamar urteetan 14-15 hektarea zirelarik. Bana besteko dentsitatea (hedatuz eraiki bizilekuak) 14-15 bizileku/ha-koa da, 2012 eta 2022 artean 4 bizileku/ha-ko zelarik. Eraiki lekuen 77 hektareetatik 25 hektarea garapen ekonomikorako dira.

44 herrietan finkatu berri den araudiak etxebizitza sozialen eskaintza (alokairuan eta jabetzan) garatzeko neurriak barne hartzen ditu, baita ere euri-uren eta ur zikinen kudeaketa ona, edateko uraren baliabideari egokitu garapena eta barnealdeko paisaien eta nortasun ezaugarri eraikiak kontuan hartzen ditu.

2021ean 44 herriekin eta horien artean hasi lana bururatua da; eta 2025eko ekainaren 21ean Euskal Hirigune Elkargoko Kontseiluak HTHP proiektua onartu zuen.

Hirigintza Kodeko R153-5 artikuluko xedapenen arabera, dagokion herri bakoitzak hiru hilabete ditu iritzieren emateko.

Beraz, herrien, Ingurumen Agintaritzaren eta Lotu Pertsona Publikoen kontsulta fase horren ondotik, hautatu HTHP proiekturako inkesta publiko bat eginen da, eta publikoak edozein ohar egiten ahalko du.

Kontsulta horien guztiaren ondotik, bere ekonomia orokorra dudan ezarri gabe, proiektua aldatzen ahalko da Elkargoko Kontseiluak (behin betiko) onartu aitzin.

Testuinguru horretan, jaun auzapezak adierazi du hTHPren ekonomia orokorra dudan ezartzen ez duen akats material baten zuzenketa egin beharko dela proiektua onartu aitzin. Alabaina, dokumentu grafikoa sortzerakoan, huts baten ondorioz, Arrosako errepidea eta H1211 lursailaren zati bat (lehenengo 547), kadastraren mugetan finkaturik, harrobi sektorean sartu zen. Herriak nahi du indarrean dagoen THPren eremukatzea atxikia izan dadin eta harrobi sektorearen eremua hTHPra aldaketarik gabe sartzea. Gauza bera hegoalderago dagoen harrobi eremuarekin, non B1349 lursaila ere huts baten ondorioz sartu baitzen.

Kasu horretan ere herriak nahi du huts hori zuzendua izan dadin eta indarrean dagoen THPren eremukatzea atxikia izan dadin lursail horretarako eta aldaketarik gabe sartzea HTPHan, hori onartu aitzin.

Kontuan harturik Lurralde Elkargoen Kode Orokorra;

Kontuan harturik Hirigintza Kodearen L.153-11 artikulua eta ondokoak;

Kontuan harturik 2016ko uztailaren 13ko 64-2016-07-13-011 prefetaren erabakia, Euskal Hirigune Elkargoaren sorkuntzari buruzkoa eta haren eskumenak finkatzen dituen;

Kontuan harturik 2021eko ekainaren 19ko Elkargoko Kontseiluaren erabakia, zeinean Hego Baxenabarreko Elkargo azpiko Tokiko Hirigintza Plana apailatzeko prozedura agintzen den, herriekin lankidetzak baldintzak onartzen diren, kausitu nahi diren helburuak zehazten diren eta biztanleriarekin hitzartzeko baldintzak finkatzen diren;

Kontuan harturik 2024ko buruilaren 28ko Elkargoko Kontseiluaren eztabaida Antolaketa eta Garapen Iraunkorren Proiektuari buruz (AGIP);

Kontuan harturik 2025eko ekainaren 21eko Elkargoko Kontseiluaren erabakia, kontzertazioaren bilana egiten zuena eta Hego Baxenabarreko Elkargo azpiko Tokiko Hirigintza Plana onartzen zuena;

Kontuan harturik onartu den Hego Baxenabarreko HTHP proiektua jakinarazi zaiela eremuko 44 herriei iritzia eman dezaten Hego Baxenabarreko hTHPari buruz;

Kontuan harturik Hirigintza Kodearen L. 153-15 eta R. 153-5 artikuluen xedapenen arabera herriak hiru hilabete dituela Elkargoko Kontseiluak erabakia hartu ondotik bere iritzia emateko, hots, 2025eko buruilaren 21a arte; epe hori iragan ondotik, erantzunik ez bada errezibitu, iritzia aldekoa dela kontuan hartuko da;

Herriko Kontseilua,

Jaun auzapezaren azalpena entzun ondoan,

Deliberatu ondoan,

Hego Baxenabarreko Elkargo azpiko Tokiko Hirigintza Plan proiektuaren alde agertu da, Euskal Hirigune Elkargoko Kontseiluak 2025eko ekainaren 21ean erabaki duen bezala.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 13

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOAK: /

2- 2025-29. DELIBEROA – ERREPIDEEN, SAREEN ETA ANTOLAMENDUEN (ABONAMENDUETATIK KANPO) HERRIARTEKO ZERBITZUAREN ESKU HARTZEA – 8.3 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak biltzarrari oinarri dio 2025etik 2029ra arteko errepide-obretarako eskaera agiridun hitzarmen oinarri-emaile bat abiatzeko proiektua, eskaera-taldean egitekoa dena. Horretarako, proposatu du Tokiko Kudeaketarako Agentzia Publikoaren Herriarteko Errepide, Sare eta Antolamendu Zerbitzuari obragintzarako laguntza eginkizun bat uztea merkatu hori egiten eta esleitzen lagundu dezan.

Jaun auzapezak zehaztu du horretarako Tokiko Kudeaketa Agentziarekin hitzarmen bat egin behar dela, eta hitzarmen horren proiektua biltzarrari aurkeztu dio, sinatzeko baimena galdatuz.

Herriko Kontseiluak,

Jaun auzapezaren azalpen osagarriak entzun ondoan eta luzaz deliberatu ondoan,

Kontuan harturik Herriko Etxea ez dela gai dosier horren ardura hartzeko, baina Herriarteko Errepide, Sare eta Antolamendu Zerbitzua erabil dezakeela kide diren beste elkargoekin denbora partekatuz,

- **ERABAKI du** Tokiko Kudeaketarako Agentzia Publikoaren Herriarteko Errepide, Sare eta Antolamendu Zerbitzuari dei egitea obragintzarako laguntza eginkizun bat egin dezan eskaera

agiridun hitzarmen oinarri-emaile bat egiten eta esleitzen laguntzeko 2025-2029 obretarako, eskaera-taldean, atxikirik den hitzarmen-proiektuaren arabera.

- **BAIMENA eman dio** jaun auzapezari hitzarmena izenpetzeko.

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 13
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

3- 2025-30. DELIBEROA – BI BIDE BERRIREN IZENDATZEA – 9.1 NOMENKLATURA

Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseiluak eta Euskal Hirigune Elkargoak abiatu Biziki Banda Zabaleko sarearen garatzearen kariatara helbideratzea beharrezkoa da zuntz optikoaren merkaturatzeko, lurraldeko etxe eta enpresek identifikatuak behar baitute.

Etxeak eta enpresak kokatuz segurtasuna ere hobetuko da (suhiltzaileak eta sokorriak) eta zerbitzuak ere (gutunak, sare hornitzaileak, banatzea, etxerako laguntza, etab.). Bi bide behar dira izendatu, batto Kurutxetako ofiziale eremuko eta bestea zirkulazioari irekia den bide bateko, ez baitu oraino izenik, Tokilepoko bidearen eta Leizartzeko bidearen artean.

Bidearen izena artoski hautatu da, lekuko toponimia eta etxeen izena atxikitzeko.

Izen honen onartzea proposatu da:

Nom de la voie ou du chemin	Bidearen izena
Chemin d'Irei	Ireiko bidea
Chemin du col d'Aharza	Aharzako lepoko bidea

Herriko Kontseiluak, azalpen hori entzun ondoan eta deliberatu ondoan, aho batez:

- **ONARTU du** bide horien izena.

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 13
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

4- 2025-31.DELIBEROA – HERRIKO GELEN ALOKATZEKO PREZIOAK ETA MOLDEAK – 9.1 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak azaldu du Herriko Etxeak gero eta galde gehiago dituela gelak alokatzeko, bereziki Plaza Xoko, Elizondoenea eta Herriko Kontseiluaren lehengo gela, lehengo Herriko Etxean kokatua, 5. gela deitua.

Beraz, aipatu gelen okupazio eta erabilera baldintzak berriz finkatu behar dira, bereziki gelak kitorik erabiltzeko baldintzak, tarifa berriak sortu behar dira eta Plaza Xoko gelako soinu sistemaren erabiltzeko berme-txeke gehigarri bat plantan ezarri. Aldaketa horiek guziaz gelen araudian eguneratuko dira.

Jaun auzapezaren azalpen osagarriak entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak:

- **ERABAKI du** berehala aplikatzea baldintza eta tarifa hauek:

5. gela: Ordainsaririk ez duten Baigorriko elkarteek edo okupatzaileek ukan dezakete hitzarmen bat gela kitorik ukaiteko. Gainera, herriko gelak egun bat baino gehiago erabiltzeko, Herriko Etxearen baimena beharko da dohainik ukaiteko. Herriko Etxeak eskubidea du hitzarmen bat egiteko dohainik herri-interesa duela estimatzen duen elkarte ororekin.

Alokatzeko prezioa 10 €-tan finkatu da oreneko, okupatzaileak ordainsari bat ukaiten duelarik bere jarduerarako. Hitzarmen bat egingen da. Egun erdi bat baino gehiago erreserbatuko duten elkarte eta partikularrentzat, berogailurako parte hartze finkoa galdatuko da.

Elizondoenea gela: 2023ko martxoko eta 2024ko otsaileko auzapezaren erabakiez gain, herriko organismo edo elkarte orok Elizondoenea gela alokatzeko, edo Herriko Kontseiluak herri-interesa duela estimatzen duen galde orotarako, kitorik alokatzeko hitzarmen bat egingen da. Partikularrek alokatzeko prezioa (besta, zeremonia, beste), 100€-tan finkatu da.

Plaza Xoko gela: Soinu sistema berri-berria ezarri da Plaza Xokon. Beraz, 100 €-ko berme-txeke bat galdatuko zaie soinu sistema erabiliko dutenei.

Herriko beste gelak: Herriko Etxeak dituen gelak kitorik prestatuko dira eta hitzarmenik gabe, herriko organismo edo elkarte orori, edo herri-interesa duela estimatzen duen galde orotarako. Alokatzeko hitzarmen bat finkatuko da prezio batekin, kasuz kasu, ordainarazten dituzten zerbitzuak proposatuko dituzten elkarteekin.

- **ONARTU du** aldatu den barne araudia,
- **BAIMENA EMAN dio** auzapezari alokatzeko hitzarmenen izenpetzeko

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 13
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

5-2025-32. DELIBEROA- VVFarekin EGIN HITZARMENAREN GEHIGARRIA- 3.3 NOMENKLATURA

Auzapezak gogorarazi du Baigorriko herriak Iparla VVFari alokatze-kontratua proposatu ziola 15 urterako, 2013ko azaroaren 1az geroztik. 2014ko urriaren 22ko eta 2020ko agorrilaren 19ko bi gehigarrik kontratu horren iraupenean eta alokairuan aldaketak eragin dituzte.

2025ean, Baigorriko Herriko Etxeak opor-herrixkako 8 bizitegi-tako bainugelak berritu zituen, eta horrek 45000€-ko finantza-karga eman zion herriari. Parteek adostu dute VVFak alokairu gehigarri bat ordainduko duela. Horrela, urteko alokairua 2700€-z (BEZa gabe) emendatuko da.

Jaun auzapezak gehigarria irakurri du.

Herriko Kontseiluak jaun auzapezaren azalpena entzun ondoan eta deliberatu ondoan:

- **ONARTU du** VVFak zor duen alokairua **2 700€-z (BEZa gabe)** emendatzea.
- **ERABAKI du** 2013ko urriaren 15eko kontratu zibilari 3. gehigarria idaztea, eta horrek zehazten du:
 - **2024ko azaroaren 1etik 2028ko urriaren 31ra alokairua 37524.35€-koa dela (BEZa gabe)**
 - **2028ko azaroaren 1etik 2029ko urriaren 31ra alokairua 21434.71€-koa dela (BEZa gabe)**
- **ARDURA eman dio** jaun auzapezari gehigarri horren izenpetzeko.

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 13
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

AUZAPEZAK HARTU ERABAKIEN BILDUMA:

4. erabakia: kredituen biramendua 2025eko ekainaren 30ean

Gai orotarik

!

Hor zirenen zerrenda:

ARANGOITS Isabelle anderea, BIBES Jean-Paul jauna, BIDART Betti jauna, CLAUZEL Sébastien jauna, COSCARAT Jean-Michel jauna, CURUTCHARRY Antton jauna, DUPUY Maddalen anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MOCHO Frantxoa jauna, MOUSQUES Bernadette anderea eta OLÇOMENDY Betti jauna.

Bilkuran hartu deliberoak 28tik 32ra zenbakituak ziren.

<u>Auzapezaren izenpedura:</u>	<u>Bilkurako idazkariaren izendatzea:</u>